

Familia hizkuntz politika: transmisioa ulertzeko eredu berri baten bila

Jone Miren Hernández García

UPV/EHU - Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte antropologia irakaslea

jm.hernandez@ehu.eus

Sarrera-data: 2014-11-25 / Onartze-data: 2014-12-19

Laburpena. Bi hamarkada baino gehiago pasa dira familia bidezko hizkuntz transmisioaren kezka piztu zenetik euskal soziolinguistikan. Garai hartan Joshua Fishman-ek eta José María Sánchez Carrión-ek deitu zuten arreta transmisioak hizkuntz gutxituen etorkizunean duen garrantziari buruz eta, geroztik, ekimen ezberdinak jarri dira martxan transmisioaren erronkari aurre egin nahian. Ekimen hauen artean izaera praktikoa zutenak nagusitu dira (transmisio programak), baina transmisioaz hausnartzeko saiakerak ere nabarmentzekoak lirateke. Lortutakoa baloratzera sartu gabe, artikuluak egindakoaren gaineko errepasoa egin nahi du. Horretaz gain, transmisioa ulertzeko eta definitzeko modu berri baten beharra aldarrikatuko da artikuluaaren bigarren zatian. Proposamen horrek familiak hizkuntzaren inguruan hartu beharreko zeregin “berria” azpimarratzen du, hau “Familia Hizkuntz Politika”ren nozioari lotuta egonik. • **Hitz-gakoak:** *euskara, hizkuntz transmisioa, familia, hizkuntz plangintza, hizkuntz politika, Family Language Policy.*

Abstract. Over two decades have passed since the concern about language transmission through the family was voiced in Basque sociolinguistics. At that time Joshua Fishman and José María Sánchez-Carrión called for attention to be devoted to the importance that transmission has in the future of minority languages, and since then various initiatives have been started to tackle the challenge of transmission. Among these initiatives those of a practical nature (transmission programmes) prevailed, but attempts to reflect on transmission also featured. This paper seeks to review what has been done but without evaluating what has been achieved. In addition, the second part of the paper will be calling for the need for a new way of understanding and defining transmission. This proposal stresses the “new” task that families will need to carry out in connection with the language, this being linked to the notion of “Family Language Policy”. • **Key words:** *Basque, language transmission, family, language planning, language policy, Family Language Policy.*

SARRERA

I

Ia 20 urte pasa dira hizkuntz transmisioaren inguruan ikertzen hasi nintzenetik. Orduan Lasarte-Oriako Udaleko euskara zerbitzuak ikerketa beka bat eskaini zuen herrian euskaren transmisioa aztertzeko. Proiektua aurkeztu eta gero, Joxemari Iraolak eta biok eskuratu genuen beka hura. 1996 urtean zen¹.

Garai hartan puri-purian zegoen gaia. Kezka sortzen zuen. Alde batetik nolabaiteko presio teorikoa zegoen. Joshua Fismanek argi esana zuen: belaunaldien arteko transmisioa funtsezkoa zen hizkuntz gutxituen berreskurapenaren prozesuan. Bere “Reversing Language Shift” izeneko teorian adierazi zuen moduan (Fishman, 1991), estrategia hori kontuan ez hartzeak porrota zekarren arriskuan egon zitekeen edozein hizkuntzentzat. Bestalde, teoriaraz gain, presio soziala hor zegoen. Garaiko “B” eta “D” ereduaren zabalpena nagusitzen ari zen hezkuntza eremuan eta egindako ahalegin izugarri horiei segida emateko transmisioa ezinbestekotzat jotzen zen. Gaztetxoak euskalduntzeko jarritako baliabideak eta emandako energia optimizatzekeko modu eraginkorra zen transmisioa. Katebegien arteko lotura eta jarraikortasuna ziurtatu behar zen. Frankismoa atzera utzita, ezin zen galdu beste belaunaldi bat.

Horretaz gain, 90. hamarkada hartako giroan helduen alfabetatzeak eta euskalduntzeak zuten indarra nabarmendu behar da. Ikasle hauen artean batzuk ama edota aita berriak ziren, euren familia hizkuntza euskara izatearen alde egiten ari zirenak...

Noski, lurralde eta zonaldearen arabera kasu eta egoera ezberdinak zeuden baina, edozein kasutan, hizkuntzak, euskarak, bazuen inertzia eta dinamika indartsu bat, aurrera begiratzera gonbidatzen zuena. Tes-tuinguru honetan kokatu behar dira transmisioari loturiko kezka eta horren inguruan garatutako lehenengo ekimenak. Artikulu honetan garai hartako hainbat gako aipatuko dira “transmisio” kontzeptua gurean zertan garatu den ezagutzeko asmoz. Horretaz gain, testuaren bigarren zatia aurrera begiratzeko gonbidapena egingo du, transmisioa ulertzeko, definitzeko eta praktikan jartzeko garaian ikuspegi berri baten beharra azpimarratuz.

Noski, lurralde eta zonaldearen arabera kasu eta egoera ezberdinak zeuden baina, edozein kasutan, hizkuntzak, euskarak, bazuen inertzia eta dinamika indartsu bat, aurrera begiratzera gonbidatzen zuena.

1. TRANSMISIO KONTZEPTUA GUREAN. IBILBIDE BATEN ERREPASO LABURRA

I Frankismoaren hizkuntz debeku zorrotza atzean utzita eta trantsizioa deituriko garaian murgilduta *zerbait egin beharraren* sentsazioa zen nagusi gizarte arlo ezberdinetan. Aipatu den moduan, espazio sozio-kulturalean jada aurretik hizkuntzaren inguruko aldarrikapenek bultzatuko inertzia indartuz zihoan: ikastolen mugimendua (bereziki 1960tik aurrera), helduen alfabetatze eta euskalduntzea (nabarmenki 1965tik aurrera), euskal kantagintza berritzailea (1961tik aurrera) eta bestelako ekimenak. Jardun hauetaz gain, hizkuntz plangintzan eta hizkuntz politikaren arloan aspaldiko aldarrikapenak erantzuteke zeuden, izan ere XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieratik hainbat erakunde kezkatuta agertzen ziren euskararen estatusagatik eta, ondorioz, larria jotzen zuten egoerari aurre egiteko modua pentsatu beharra zegoela nabarmentzen zuten (Urla, 1989). Euskal Pizkundea (1876-1936), Euskaltzaindia (1919) edota Eusko Ikaskuntza (1918) bezalako erakundeak, besteak beste, hainbat hausnarketa eta proposamenen iturburu izan ziren egun “hizkuntz plangintza” edo “hizkuntz politika” bezala izendatzen ditugun kudeaketa tresnak definitu, garatu eta sendotu baino lehen. Gerra Zibilak eten egingo zuen aipatutako erakundeek abiatutako eztabaida, baina jada egindako lana eta piztutako kezken aztarnak airean iraungo zuten. Denborarekin euskara zerbitzuak eta bestelako zerbitzu publiko, zein pribatuen eraketa etorriko zen eta horrekin batera hizkuntz plangintza eta hizkuntz politika modu antolatu eta formal batean ulertzeko parada.

Garai berdinean eta alderdi politikoen legeztatzearekin batera hizkuntzaren dimentsio politikoa agerian geratuko zen, eta, orokorrean, euskararen inguruko diskurtsoak modu lerratuan eratuko ziren: alde batetik alderdi abertzaleei loturikoak; bestaldetik alderdi estatualistei loturikoak, lerro bakoitzaren barruan ikuspegi ezberdinak egonda ere.

Azkenik, euskal soziolinguistikaren abiapuntua aipatu beharko litzateke. Beste testu batean azaldu dudan moduan (Zarraga *et. alt.*, 2010) Euskal Herrian soziolinguistikaren sorrera eta garapena euskararen egoera larriak bultzatu izan zuen. Esanda geratu den moduan, *zerbait egin* behar zenaren sentsazioa nagusi zen eta testuinguru horretan, 70eko hamarkadatik aurrera, eta nahi horretatik abiatuta, kezka teoriko eta metodologikoak piztu ziren. Hori dela eta, lehenengo ikerketak martxan jarri ziren. Iñaki Larrañaga soziologoak elkarrizketa batean azaltzen

zuen moduan (Esnaola; Odriozola, 2000), 1972-1975 bitartean bizpahiru ikerlan agertu ziren. Euskal soziolinguistikaren lehenengo urratsak ziren horiek, José M^a Sánchez Carrión “Txepetx” horren aitziandari izanik, *El estado actual del vascuence en Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo* izeneko lanak (Sanchez Carrión, 1972) euskal soziolinguistika (zientifikoa) inauguratuz (Esnaola; Odriozola, 2000).

Orain arte esandakoaren ondorioz ikus daiteke 60-70 hamarkadak bereziki oparoak izan zirela ekimenei dagokionez. Guztien artean euskaren inguruko irudi eta diskurtsoak sortzen eta zabaltzen lagunduko zuten; tartean hizkuntza eta gizartearen arteko lotura estutuz. Tonu zein edukiz irudi eta diskurtso ezberdinak topatzen dira eragile hauek zabaltzen dituztenen artean, baina orokorrean esan daiteke euskararen aldeko zein aurkako irudi/diskurtsoek hauskortasuna erabiltzen zutela hizkuntzaren egoera aztertzeke eta baloratzeko. Paradoxikoa badirudi ere, hauskortasun hori hizkuntza bultzatzeko (*salbatu beharra!*) zein desagerrarazteke (*zergarako salbatu?*) aitzakia edo argudio bilakatu zen.

Iraganean gertatu zen moduan, euskararen orainaldia, eta bereziki etorkizuna, hauskorra irudikatzen zen. Kezka horietan oinarrituz gero, transmisioa funtsezko jotzen zen gerora begira eta helburu bihurtzen da, batez ere sortzen eta egituratzen ari ziren hizkuntz plangintza, hizkuntz politika zein soziolinguistika eremuetan. Izan ere, eremu hauek izan ziren transmisioa definitzeko, aztertzeke eta bultzatzeko garaian protagonismoa bereganatu zutenak. Asmo eta ahalegin hauen oinarrian bi azterlan aipatu beharko liriateke ekimen eta egitasmo ezberdinei nolabaiteko marko edo azalpen teorikoa jarriko zietenak: Joshua Fishman-en RLSa² (Fishman, 1991) eta Sánchez Carrión-en *Un futuro para nuestro pasado* (Sánchez Carrión, 1987).

Fishmanen lanak Euskal Herrian eta batez ere hizkuntz plangintza eta hizkuntz politikaren arloan izan zuen oihartzuna azpimarratu da aurretik. Fishmanen planteamenduan belaunaldien arteko transmisioa ezinbesteko gako zen hizkuntz gutxituen berreskurapen prozesuan (Schwartz, 2010). Egileak oinarri-oinarrian kokatzen du ama hizkuntzaren transmisioa: etxe giroan, auzo inguruan eta gertuko komunitatean. Praktikan Fishmanek bultzatuko ereduak ahalegin guztiak belauneko familia bidezko jarraipena bermatzeari begira jarri behar direla dio. Geroztik familia interes guene bilakatzen da bai hizkuntz planifikazioan, bai hizkuntz politikaren ikuspegitik. Aurrerago azalduko den moduan, elkarte zein familia erakundeari begira jartzen dira, eremu

Kezka horietan oinarrituz gero, transmisioa funtsezko jotzen zen gerora begira eta helburu bihurtzen da, batez ere sortzen eta egituratzen ari ziren hizkuntz plangintza, hizkuntz politika zein soziolinguistika eremuetan.

“Dáles lo que no tienen”, “Eman zeurea”, “Tómatelo tú” edo “Zeuk hartu” bezalako esaldiak erabili ziren guraso berriak euskararen mundura erakartzeko.

horretan nola eta zertan eragin asmatu nahian. Erronka gisa irudikatzen da hurrengo hamarkadei begira.

Bestaldetik, José María Sánchez Carriónnek, “Txepetx” *Un futuro para nuestro pasado* doktore-tesian hizkuntzari atxikitzen zaizkion zazpi funtzioen artean³ familiari lotutakoa azpimarratzen du. Jakina denez, egilearen ustez, funtzio hau eta identitatearekin lotutakoa oinarritzakoak lirarteke hizkuntzaren mantenuan eta eskurapen prozesuan. Hauek garatu gabe hizkuntz aldaketarako aukerak nabarmen handituko lirarteke.

Ez da tokia, ez unea bi egile hauen lanetan sakontzeko, biak hamaika hausnarketa utzi dute euskararen egoera eta geroari buruzkoak, eta horietako asko aldizkari honetan jasoak izan dira, baina argi dago euren teoriak eta planteamenduak agertu zirenean (80. eta bereziki 90. hamarkadan) transmisioaren inguruko kezka nabarmen hauspotu zela. Kezka “teoriko” eta enpirikoak ez ezik, esku-hartzeari begirako lehen-tasuna ere bilakatu zen garaiko hizkuntz plangintza eta hizkuntz politikarentzat.

Horrela, garai hartan transmisioaren gaiarekiko zegoen interesaren ondorio dira datozen puntuetan aipatzen diren ekimenak: (1) transmisio kanpainak edota egitasmoak, (2) hainbat daturen bilketa eta azterketa eta (3) saiakera teoriko edota aplikatuak. Ekimen bakoitzaren inguruan protagonista, hartzaile eta bultzatzaile ezberdinak topa daitezke baina kasu gehienetan esku-hartze publikoa dela esan daiteke, tokiko gobernuak eta Eusko Jaurlaritza eragile nagusiak izanik.

1.1 Transmisioaren inguruan garatutako kanpainak edota egitasmoak

Testuinguru ezberdinetan transmisioaren inguruan pizten den kezkaren adierazgarri nagusienetariko bat 1989-1994 urte bitartean martxan jartzen diren egitasmoak dira. *Euskara familia bidezko transmisio kanpaina* izen zabalaren barruan, hainbat ekimen gauzatu ziren euskal udalerrri askotan. Programa hauek bi alor nagusi jorratu zituzten. Alde batetik, sentsibilizazio kanpainak diseinatu eta garatu zituzten, lelo zein irudi erakargarrien laguntzaz. “Dáles lo que no tienen”, “Eman zeurea”, “Tómatelo tú” edo “Zeuk hartu” bezalako esaldiak erabili ziren guraso berriak euskararen mundura erakartzeko. Amak, aitak eta umeak, biberoiak, edoskitzea eta orokorrean jaio berrien zein familia kideen arteko lotura afektiboen mundua bilakatu ziren ardatz euskara transmisioaren garrantziaz ohartarazteko. Bestaldetik, eta sentsibilizazio estrategia hauekin

batera, euskarazko ikastaroak eskaini ziren gurasoen beharrei egokituta. Hori zen, nagusiki, ikastaro hauen berezitasuna, izan ere, antolaketa, edukia, ordutegia edo kokapena haur txikiak zituzten gurasoak euskara klasetara erakartzeko pentsatuta zeuden.

Ekimen hauen balorazioa alde batera utzita argi dagoena da euskararen berreskurapen prozesuan beste urrats bat izan zirela, nolabaiteko mugarria; izan ere, familiaren eragile profila zehazten da, ordura arte eskolak izandako protagonismoari elementu/agente berri bat gehituz. Honekin batera esan daiteke egitasmo zehatz hauek zituzten helburuak finkatzerakoan, aurrerantzean euskararen familia bidezko transmisioaren inguruan bideratuko ziren mezuak ezarrita geratuko zirela.

Horrela, aipatu daiteke ekimen hauek martxan jartzerakoan hizkuntz politika eta hizkuntz plangintzaren ikuspegitik, helburu nagusia euskararen familia bidezko transmisioa hobetzea zela. Horrekin batera hainbat helburu xehe azpimarratzen ziren: (1) guraso euskaldunen motibazioan eragitea euskara bere haurrei transmititzeko, (2) gurasoen euskarazko ezagupenak areagotzea, (3) guraso erdaldunak bere haurrekin euskaraz komunikatzera iristeko euskara ikastera animatzea. Ikusten denez, garaian euskararen berreskurapenean ohikoak ziren ezagupena, erabilera eta motibazio esparruak (Sánchez Carrión, 1987), etxeko eremuan aplikatzea eta garatzea zen jomuga.

Orain dela bi hamarkada abiatutako lan ildo bizirik iraun duela esan daiteke, agian oihartzun gutxiagorekin, baina egun oraindik ekimen ezberdinak topa daitezke familia bidezko transmisioan eragiteko asmoz⁴. Gehienetan udalerrri edo eremu geografiko zehatz bati loturikoak dira eta salbuespenak salbuespen, esan daiteke gehienek sentsibilizazio, komunikazio eta ikaskuntza esparruetan eragitea dutela helburu. Horretarako web guneak zabaldu dira, euskara ikasteko diru-laguntzak eskaini edo material bereziak sortu (hizkuntza aholkuak, hiztegiak, ipuinak, gidak, eta abar). Azken urteotan familiaren hizkuntz esparruan garatutako jarduerak ugariak badira ere, esan daiteke (ia) denetan ezaugarri amankomun batzuk topatu daitezkeela: (1) erakunde publikoek bultzatutako ekimenak dira, (2) gurasoak dira helburu, gurasoak umeentzat (hizkuntz) eredu direlakoan, (3) sentsibilizazioa ardatz nagusia izaten da, (4) euskara ikasteko edota erabiltzeko laguntzak eskaintzen dira (material bereziak sortuz edota euskara ikasteko diru-laguntzak emanez) eta (5) gurasoak haurrekin euskaraz komunikatu ahal izateko material bereziak garatzen dira.

Esku-hartzearen ikuspegitik familiarena esparru zaila da, besteak beste eremu pribatua delako eta bertan garatzen diren harremanak informalak direlako. Egin daitezkeen gauzen artean, asko, jada eginak direla ematen du.

Aipatu den moduan, lehenengo kanpainak eta programak abian jarri zirenetik bi hamarkada pasa dira jada eta hau litzateke egindako ibilbidearen erradiografia laburra. Balorazio oso ezberdinak egin badaitezke ere, inpresio nagusia zera litzateke: esku-hartzearen ikuspegitik familiarena esparru zaila da, besteak beste eremu pribatua delako eta bertan garatzen diren harremanak informalak direlako. Egin daitezkeen gauzen artean, asko, jada eginak direla ematen du.

1.2 Euskara familia bidezko transmisioarekin lotutako hainbat datu eta ikerlan

Ikusi denez, Euskal Herrian familia eremua (hizkuntz) esku-hartzeko esparru bilakatu da 90. hamarkada geroztik. Baina ekimenak sortu eta diseinatzeke kezka izateaz gain, eremu honen inguruko datuak biltzeko ardura ere garatu da. Modu horretan, esan daiteke, euskara familian gauzatzen ari zen ibilbidea aztertzeke eta neurtzeke saiakera ezberdinak egin direla. Kasu batzuetan ikerketa zabalak eta ikuspegi makroa dutenak egin dira. Horien adibide nagusia Eusko Jaurlaritzak zuzendutako inkesta eta mapa soziolinguistikoak izan daitezke⁵. Bietan etxeko erabileraren inguruko datuak biltzen dira eta horrek transmisioaren dimentsioa irudikatzeke bidea ematen du. Datu batzuk adibide gisa jartzeagatik, 2014. urtean argira atera diren *Mapa Soziolinguistikoaren* zenbait ondorio aipatuko dira, transmisioak gaur egun biltzen dituen hainbat ezaugarri nabarmentzeke. Alde batetik, eta datuek erakusten dutenez⁶, esan behar da etxeko erabilerari ez dela ia aldatu azken 20 urteotan. Horrela, 1991ean EAEko biztanleen %21,8ak erabiltzen zuen euskara etxean, eta 10 urte beranduago (alegia 2011an) %20,8ak. Ondorioz, euskararen erabilerak puntu bateko beherakada izan du hamarkada batean. Gainera, datuek erakusten dutenez, duela 20 urte pertsona nagusienak ziren etxean euskara gehien erabiltzen zutenak. Egun, ordea, 20 urtetik beherako gazteak dira etxean euskara gehien erabiltzen dutenak. Azkenik, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien artean gero eta gehiago dira etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenak. Euskaldun zaharren artean, berriz, erabilerari jaitsi egin da. Datu hauetatik tiraka ondorengo elementuak nabarmentzen ditu ikerketak: (1) lehen hizkuntza euskara izatearen garrantzia erabilerari begira, (2) gurasoen hizkuntza ezaugarriak (bikote euskalduna, mistoa, eta abar) transmisioan duten eragina, (3) etxeko erabileraren indizea mantentzea, (4) erabiltzaileen profilean emandako aldaketak, izan ere, egun gazteenek, elebidunek eta euskaldun berriek erabiltzen duten gehien euskara etxe barruan eta, azkenik, (5) hiztunen profil berria, “eskolak euskalduntutako gurasoak” hain zuzen ere.

Ikerlan zabal hauetaz gain, ikuspegi mugatuagoa izan duten azterlan edo saiakerak ere egin izan dira. Esate baterako SIADECOk 1994an zuzendutako *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa* izeneko ikerketa, urte bat beranduago Iñaki Arrutik prestatu zuen *Euskararen familia bidezko jarraipena* txostena, (1995) edota aldizkari honetan argitaratutako J.F. Zinkunegirena zen artikulua (1995). Ondoren, lan gehiago burutu izan dira: Peio Jauregi eta B. Moreno (1996) edo Joxean Urdangarinek egindakoak, hain zuzen ere.⁷ Ikusiko denez ez dira lan asko, baina modu batean edo bestean (ikerketa zabalak edota ikerketa mugatuagoak) bildutako informazioak ondoren aipatzen diren ideiak finkatzeko balio izan dute: (1) familia giltzarria da hizkuntz (gutxituen) normalizazioan, (2) ama hizkuntza eta hiztunen elebitasun mota erlazionaturik daude (3) ama hizkuntza ziurtatzeak euskararen familia bidezko jarraipena ziurtatzea eskatzen du, (4) transmisio-prozesuaren emaitzak ondorengo faktoreen baitan egongo lirateke: gurasoen euskararen eza-gupen mailan, seme-alaben belaunaldia edo aro soziopolitikoan, zonalde soziolinguistikoan, kanpoko faktoreen eraginean (euskararen irakaskuntza, komunikabideak, administrazio publikoa, eta abar).

1.3 Hizkuntz transmisioa: egindako ibilbidearen ondorioak

Aurreko orrialdetan transmisioaren inguruan hizkuntz plangintzak, zein hizkuntz politikak garatutako estrategiak (nagusiki transmisio kanpainak eta transmisio programak) aipatu dira. Horiekin batera fenomeno honen inguruan jasotako datuak eta bultzatako hausnarketak azaldu dira laburki. Diagnostikoa egiteko behar diren elementuak beraz, mahai gainean daude jada. Kasu honetan aipatu daitezkeen aspektuen artean ondorengo hirurak nabarmendu nahi dira.

Lehenengoz azpimarratu behar da, azkenengo hamarkadetan euskararen inguruan nagusitu diren diskurtsoak eta irudiak hauskortasunean oinarritu direla, izan ere, gehienetan euskararen ahuldadea nabarmentzera jo izan da: euskara salbatu edota lagundu beharra izan da behin eta berriro errepikatu den eskaera. Euskara hizkuntza elementu ahul gisa agertu da, beti arriskuan. Argi da oinarrian aldagai ugari egon direla —eta badira egun ere— euskara kezka izateko, baina pentsatu behar da ere, irudi eta diskurtso mota horiek zein nolako ondorioak ekarri dituzten eta noraino izan diren baliagarriak hiztunen atxikimendua lortzeko.

Bestalde, esan behar da, transmisioa estrategia eta tresna gisa irudikatu izan dela, ezinbestekoa hizkuntzaren bizi iraupenean eta erreprodukzioan. Baina agian iraganari begiratzeko joera horrek ez du lagundu azken ha-

Haurrek hizkuntz transmisioan duten papera aldarrikatu du, etorkizunari begira hiztun gazteek hizkuntzaren bizi iraupenean izango duten garrantzia aurreratuz.

markadetan euskararen inguruan izandako aldaketei erantzuteko; ez familia egiturari dagokionean, ezta gizartean orokorrean gertatutakoei dagokienean ere. Euskalduntze prozesuaren ondorioz hiztun profil berriak agertu dira; familia eredu berriak sortu diren moduan; hizkuntzari loturiko balio berriak agertu diren moduan... Aldaketa guzti hauek hizkuntz transmisioan ere eragina izango zutela irudikatu zitekeen, baina gutxi eginda aldaketa horiek eta horien ondorioak aztertzeke. Etorkizuna proiektatzeko orduan iraganak jarraitu izan du nagusi izaten.

Azkenik, hirugarren elementu bat: urteotan transmisioak eremu pribatuarekin mantendu duen lotura. Izan ere, orain arte transmisioaren inguruan nagusitu den ikuspegian, hau modu oso mugatua izan da ulertua: transmisioa etxe barruan gauzatutako jarduna litzateke, gurasoen eskuetan geratzen den ardura izanik, testuinguru zabalagotik aldentuta. Salbuespena eskola izango litzateke, izan ere erakunde honek transmisio “kulturalen” (Sánchez Carrión, 1987) eduki duen protagonismoa aitortua eta goraiatua izan da. Dena dela, argi dago bai familian, bai eskolan transmisioa helduen eskuetan utzi dela, Paula Kasares behin baino gehiagotan aipatu duen “goitik beherako” ikuspegia nabarmenduz. Praktikan egile honek, aurretik beste batzuk egin izan duten moduan (Ochs; Schieffelin, 2011; Luyks, 2005), haurrek hizkuntz transmisioan duten papera aldarrikatu du, etorkizunari begira hiztun gazteek hizkuntzaren bizi iraupenean izango duten garrantzia aurreratuz.

Kasaresek berak aldarrikatu duenez (Kasares, 2013), egun transmisioa ulertzeko, aztertzeke eta dinamizatzeke beste erabateko tresnak behar dira: alegia, gizartean, familietan eta hiztunengan gertatutako aldaketak barne bilduko dituen kontzeptuak zein ikuspegiak. Beharrezkoa jotzen den lanketa berri horri lotuta, testu honen bigarren zatian hainbat elementu jarri nahi dira mahai gainean. Helburua ez da, inola ere, transmisioa ulertzeko edo garatzeko eredu berri bat proposatzea, transmisioaren etorkizunaz burutu beharreko hausnarketan hainbat elementu ekartzea baizik.

2. HIZKUNTZ TRANSMISIOAN ERAGITEKO EREDU BERRI BATEN BILA

I Aurretik aipatu den moduan, kanpoko zein barruko tradizioaren eraginez, euskal soziolinguistikan eta hizkuntz plangintzan, esku-hartze eredu jakin bat garatu eta aplikatu da azken hamarkadetan. Ñabardura asko egin badaitezke ere, orokorrean esan daiteke hizkuntz plangintzan,

hizkuntz politikan eta soziolinguistikan helburu jakin batzuk aplikatu eta garatu direla. Euskararen egoerak behartuta, hizkuntz errealitatean esku-hartzea izan da nagusitu den bidea. Horrekin lotuta egoera diagnostikatzea eta neurtzea, eta egitasmoak diseinatzea, gauzatzea eta ebaluatzea izan dira protagonismoa hartu duten jarduerak, beti ere planifikazioaren beharrak bultzatutako ikuspegitik.

Neurri handi batean, ikuspegi eta praktika hauek errealitatetik bereizita ulertu dira, hizkuntz eragileak eta hizkuntzaren eremu sozialak bananduta egongo balira bezala. Politika, plangintza eta soziolinguistika familia eremutik eta eremu sozial (zabalago)tik bereizita agertu dira. Urteetan euren ardura eragitea izan da baina, esku-hartzerako orduan planteamendu zehatz batetik egin da: praktika eremu zein agenteen bereizketa eta banaketa mantentzea. Hizkuntza politika zein hizkuntz plangintza alde batetik, eta soziolinguistika bestetik “kanpoko” agente gisa irudikatu dira, eta familiak edo arlo sozial zabalagoa hartzaile gisa. Baina, zergatik ez irudikatu harreman estuago bat? Are gehiago, zergatik ez kontsideratu familia eremua edota komunitate (zabala)ren eremua hizkuntz politikari edo planifikatzaile gisa?

Hau da, praktikan, beste testuinguru batzuetan jada aplikatzen ari den ikuspegia, familiari loturiko hizkuntz ardurak beste era batean irudikatu eta landu nahian. Ikuspegi berritzaile honetatik, gurean “transmisio” gisa definitu izan denarekin bi tradizio ezberdinen arteko batura egitea proposatzen da. Horri, “Family Language Policy” deitu izan zaio. Cassie Smith-Christmasek horrela azaltzen ditu eremu (berri) honen ezaugarriak (Smith-Christmas, 2014: 511):

Although language policy is commonly associated with the higher echelons of social organization, such as a government and education, a recent vein of inquiry has turned its attention to examining language policy at the level of the family. Known as Family Language Policy (FLP), this developing field seeks to bring together two previously separate disciplines: language policy and child language acquisition. (...) Though not limited to bi- or multilingual families, the FLP framework is integral to discussing families in multilingual environments, as the presence of at least two languages in the child’s immediate socio-cultural environment means that at some level, decisions about what language(s) to use with the child will surface.

FLP-en eremua duela hamarkada bat edo hasi zen garatzen, bereziki migrazio prozesu globalei lotuta. Agerikoa da mundu osoan zehar mugikortasuna areagotzen ari dela eta, horrek ondorio zuzenak izan ditu

Zergatik ez kontsideratu familia eremua edota komunitate (zabala)ren eremua hizkuntz politikari edo planifikatzaile gisa?

(eta ditu) familia osaketan, zein bere kultur eta hizkuntz praktketan. Migratzen ari diren familia horien artean, zergatik batzuk galtzen dute euren hizkuntza? Zergatik beste batzuk mantentzen dute? Zergatik, Xiao Lan Curdt-Christinsen-ek dioten moduan, ingurune elebakar batean hazten diren ume batzuk elebidun bilakatzen dira eta beste batzuk, aldiz, ingurune elebidun batean bihurtzen dira elebakarrak? (Curdt-Christinsen, 2013). Galdera hauen oinarrian gurasoek familia gunean hizkuntz politika bat ezartzeko duten aukera dago, izan ere beraien erabakiak funtsezkoak suertatzen dira hizkuntzen sustapenean edo desagertenean. Gurasoen hizkuntz jarreran arreta jartzeak bidea ematen digu ikusteko zein nolako elkarreragina dagoen eremu pribatu eta publikoen artean; barruko eta kanpoko ikuspegiaren artean, izan ere Curdt-Christiansen-ek aipatzen duen moduan (Curdt-Christiansen, 2013), hizkuntz politikak bultzatako diskurtsoak eta irudiak (ideologia azken finean) isla du familia eremuan eta bertan hartzen diren hizkuntz erabakietan. Era berean, familia gunean erabakitzen denak eta bertan praktikan jartzen denak bere isla izango du kultur eta hizkuntz eremu zabalean.

Hau guztia esanda, egokia dirudi gurean ere galdetzea —aurretik beste testuinguru batzuetan egin den moduan (Schwartz, 2010)— zer dakigu familia edota etxeko hizkuntz politika/plangintzari buruz? Zer nolako jarrera dute familia kideek hizkuntz planifikatzaile gisa? Horrelako galderak eta horrelako ikuspegiak egoera berriak mahaiganeratzten dituzte orain arte “familia bidezko transmisioa” zena beste modu batean ikusteko. “Family Language Policy” (FLP) izeneko lan-ildoak (“Familia hizkuntz politika” (FHP) gurean) protagonismo berria ematen dio familia-guneari, bertan kokatzen baita haurren hizkuntz sozializazioa (horri loturiko prozesua gehi praktikak) eta, orokorrean, euren hizkuntz ingurumenaren kudeaketa. Jardun mota bat etxeko hormak gainditzen dituen, hizkuntz politika orokorraren eragina ere kontuan hartzekoa baita.

Ikuspegi honetatik familiaren esparrua askoz dinamikoagoa eta konplexuagoa litzateke bertan hizkuntz kudeaketa, ikaskuntza eta negozioa biltzen direlako. Gainera, kontuan hartu behar da, prozesu guzti hauek ezaugarri ezberdinak izan ditzaketela denbora eta geografien arabera. Guzti horrek, ikerlari zein planifikatzailearen ikuspegitik, zaildu egiten du familia gaineko azterketa baina, era berean, ezin da ukatu aberastu egiten duela familiaren inguruko hizkuntz ikuspegia.

Horrela izendatu ez bada ere, argi dago familiak betidanik jokatu duela hizkuntz planifikatzaile moduan: hizkuntza batzuk bultzatu dituen

beste batzuen aurrean, guraso biek edo horietako batek ordura arte ezezaguna zen hizkuntz bat ikasi duenean, euren seme-alaben ikastetxea aukeratzerakoan... Praktika eta erabaki guzti hauetan hizkuntz irizpideak soma daitezke. Baina orain arte familiari ez zaio gaitasun eta ahalmen hori aitortu eta transmisioaren inertzia edo hutsegitea kokatu dira interesaren erdigunean ikerketarako eta esku-hartzerako dauden aukera ezberdinak ustiatu gabe utziz.

Egun egile ezberdinek aitortzen dutenez, familia hizkuntz politikaren interesa bereganatzen ari da, bertan arlo ezberdinak garatzeko aukera emanaz (Curdt-Christiansen, 2013; Schwartz, 2010). Labur bada ere, testu honen bukaeran horietako batzuk aipatu nahi dira eredu edo proposamen berri hau zertan datzan hobeto irudikatu ahal izateko.

2.1 Familia Hizkuntz Politikak biltzen dituen arloak

Curdt-Christiansen-ek dioenaren arabera FLP-ak oinarri teoriko ezberdinak ditu, bertan, besteak beste, hizkuntz politika, hizkuntz sozializazioa edota haurren hizkuntz ikaskuntza bezalako arloak bat egiten dutelako (Curdt-Christiansen, 2014). Diziplinartekotasuna errealitate bilakatu duen eremua da FLP eta ondorioz kezka ezberdinei eskaini die hausnarketa egiteko tokia. Egile gehienek aldiz, hiru osagai nabarmentzen dituzte FLP-ren eremuan: ideologia, praktikak eta kudeaketa. Zalantzarik gabe mereziko luke horietako bakoitzean sakontzea, baina testu honen helburua bakoitza aurkeztea da; irudikatzea elementu horietako bakoitzari loturiko galderak eta interes guneak.

Hizkuntza ideologia litzateke aipatutako lehenengo elementua. Kasu honetan ideologiak hizkuntzaren gainean dauden uste, iritzi, irudi edo diskurtsoei egiten die erreferentzia. Hizkuntzaren ezagutza, erabilera edo jarrera alde batera utzita ikuspegietan eta usteetan sakontzeko deia egiten da, abiapuntuan egon daitezkeen galderak halakoak izanik: zer pentsatzen dute familia kideek hizkuntzaren inguruan? Zein irudi proiektatzen dira familia eremutik hizkuntzaren inguruan? Zein mezu edo diskurtso nagusitzen dira hizkuntzaren inguruan? Zein da gurasoen (hizkuntz) ideologia? Eta umeen hizkuntz ideologia? Eta gainontzeko familiakideena (aitona-amonak, izeba-osabak...)?

Hizkuntza praktikak lirateke FLP-ek kontuan hartzen duen bigarren elementua. Usteak eta iritziak alde batera utzita, kasu honetan hiztunek hizkuntzarekin egiten duenari egiten zaio erreferentzia. Modu honetan erabilera dago erdigunean eta honi lotuta galderak hauek izan daitezke:

**Egun egile
ezberdinek
aitortzen
dutenaz, familia
hizkuntz
politikaren
interesa
bereganatzen ari
da, bertan arlo
ezberdinak
garatzeko aukera
emanaz.**

Argi dago, hizkuntz sozializazio prozesu honetan familiak bere hizkuntz politika garatu beharko duela, honek hizkuntz ideologia, praktika eta kudeaketa kontuan hartzen dituela.

zer egiten du familiak hizkuntzarekin? Zer erabilera mota dauka? Zein erabilera bultzatzen du? Familian, zein hizkuntz arau daude? Negoziatzen dira? Eta nola? Zein erabilera ematen da helduen artean? Zeintzuk umeen artean? Eta helduen eta umeen artean? Zein harreman mota eraikitzen dira hizkuntzaren erabileraren bitartez? Horrelako galdeak, besteak beste, egin daitezke familia gunean ematen diren hizkuntz praktiken inguruan.

Azkenik, hizkuntz kudeaketa da kontuan hartu daitekeen hirugarren elementua. Kasu honetan hizkuntza baten inguruan sortzen den dinamikari edo hizkuntza bat baino gehiago daudenean egiten diren aukeraketei egiten zaie erreferentzia, bertan irudikatu daitezkeen galderak horrelakoak izanik: zer egiten du familiak bere hizkuntza mantentzeko eta bultzatzeko? Zein da kide bakoitzaren zeregina hizkuntz garapenean? Zein ahalegin egiten dira hizkuntza bat mantentzeko, edo bigarren hizkuntz bat bultzatzeko? Zein estrategia planteatzen dira? Ba al du familia-guneak hizkuntzarekiko helbururik?

Zerrendatutakoak galdera posible batzuk dira. Helburua ez zen ahalik eta gehienak biltzea baizik Familia Hizkuntz Politikaren barruan kokatzen diren eremu nagusiak irudikatzen laguntzea. Planteatzen diren kezkek ikusita erraz uler daiteke zergatik aldarrikatu daitekeen familia gunea hizkuntz politikarako esparru gisa. Azken finean ezin da ahaztu familiaren eskuetan geratzen direla, besteak beste, hizkuntz sozializaziori atxikitako betebeharrak nagusiak (Ochs; Shieffelin, 2011: 11): alde batetik, hizkuntzan garatu beharreko sozializazioa (alegia, hizkuntza irakastea); bestaldetik, hizkuntzaren bitartez gauzatu beharreko sozializazioa (ume eta gazteei gizarte rolak, arauak, harremanak, eta abar helaraztea). Eta argi dago, hizkuntz sozializazio prozesu honetan familiak bere hizkuntz politika garatu beharko duela, honek hizkuntz ideologia, praktika eta kudeaketa kontuan hartzen dituela. Are gehiago, hizkuntzarekiko ardura hartzen ez badu ere, hor hizkuntz politika baten “eredua” legoke.

Planteamendu honetatik familia agente aktibo bezala agertzen da, eta horrek potentzialitatea ematen dio bere guneetatik kanpo eragina izateko eta bestelako dinamikak ere indartzeko. Barrura begira ez ezik kanpora begira ere, ulertu daiteke familiaren zeregina. Hau argi ikus daiteke hezkuntza eremuan eta gertuko komunitatean (auzoa, herria) erreparatzen bada. Lehenengoaren kasuan, familia ikus daiteke beste familia batzuekin batera, sare zabalago batean txertatuta; bigarrengoaren

kasuan familiaren dimentsio publikoa/politikoak kokatuko litzateke inguruarekiko duen (hizkuntz) jarrera garrantzi handikoa izanik. Beti ere kontuan hartuta familia aipatzen denean gurasoak ez direla protagonista bakarrak, bertan biltzen diren hiztun guztiak baizik, denek parte hartzen dutelako eta denek eragina dutelako hizkuntz politika zehatz bat finantzatzeko eta bultzatzeko garaian.

2.2 Ondorioak

Transmisioaren kontzeptua (eta horri loturiko praktikak) birpentsatu beharra dago. Azkenengo hamarkadetan horren inguruan garatutako praktikak zein ikuspegi teorikoak aztertu, ebaluatu eta eguneratu egin behar dira egoera soziolinguistikoari so eginez. Azkenengo hamarkadetan aldaketa nabarmenak gertatu dira hizkuntzari dagokionez eta horietako aldaketa batzuetan familia guneak parte hartze zuzena eduki du: euskalduntze prozesuaren bultzatzaile izan da familia, baina, aldi berean prozesu horren fruituak ere jaso ditu. Familia askoren hizkuntz dinamika eta hizkuntz genealogia nabarmen aldatu da. Halere, egun oraindik gutxi dakigu familian ematen diren hizkuntz dinamiken inguruan eta askoz gutxiago aipatutako aldaketek izandako eraginaren inguruan edota familiak berak bultzatutako aldaketei dagokienean. Gabezia hauen azpian arrazoi ezberdinak egon daitezke, baina horietako bat da orain arte hizkuntz plangintza zein hizkuntz politikatik familiaren inguruan nagusitu den ikuspegia: transmisioaren zereginari lotuta, familia-guneak iraganarekin lotzen zuen hizkuntza, euskara mantentzea bere zeregin nagusia izanik. Hau eginkizun garrantzitsua bada ere, murrizta geratzen da gune horrek dituen potentzialitateak ikusita.

Artikulu honetan aipatutako hainbat ikuspegik eta planteamendu teorikok, orain arte familiaren gainean egin izan diren irakurketak dinamizatze eta zabaltzeko aukera ematen dutela pentsatzen da, Familia Hizkuntz Politika horren adibidea izanik. Beste testuinguruetan nozio horren inguruan egiten ari den erabilpena ikusita pentsatzekoa da euskal soziolinguistikan txertatzeak ondorio interesgarriak ekar ditzakeela. Besterik ez bada ere, transmisioa beste era batean pentsatzeko eta irudikatze aukera ematen duelako, eta hori azken urteotan egiteke dagoen lana da. ●

OHARRAK

1. Euskararen familia bidezko transmisioa Lasarte-Orian. Transmisio-kanpainen ebaluaketa eta etorkizunerako joerak zen ikerketa beka horren izenburua.
2. RLS edo Reversing Language Shift "Hizkuntza Indarberritzea" edo HINBE gisa itzuli izan da euskaraz.

Familia askoren hizkuntz dinamika eta hizkuntz genealogia nabarmen aldatu da. Halere, egun oraindik gutxi dakigu familian ematen diren hizkuntz dinamiken inguruan eta askoz gutxiago aipatutako aldaketek izandako eraginaren inguruan edota familiak berak bultzatutako aldaketei dagokienean.

3. Hauek dira Sánchez Carriónek aipatzen dituen zazpi funtzioak: Nazioarteko hizkuntza, Zibilizazio hizkuntza, Nazio hizkuntza, Hizkuntza lokala, Laneko hizkuntza, Familia Hizkuntza eta Identitate hizkuntza.
4. Azken urteotan martxan jarritako ekimen batzuen izenak dira hauek: *Eman giltza, Zure eginkizuna, zure etorkizuna, Zer ikasi, hura egin, Duzun onena, Jolastuko gara, Etxean zer ikusi, hura ikasi, edo Transmisioan zure esku.*
5. Inkesta soziolinguistikoak ondorengo urtetan gauzatu dira: 1996, 2001, 2006, 2011. Aldiz, Mapa Soziolinguistikoak 1986, 1998, 2005, 2009 eta 2014 urtetan egin dira.
6. Kasu guztietan kontuan hartu behar da lurralde batetik bestera datuetan geratzen diren aldeak.
7. Lan hauen erreferentziak artikulua honen bibliografian aurkitu daitezke.

BIBLIOGRAFIA

- ARRUTI, I. (1997). "Euskararen familia bidezko jarraipena", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*. 22/23.zenb.; 69-110.
- CURDT-CHRISTIANSEN, Xiao Lan. (2013). "Family language policy: sociopolitical reality versus linguistic continuity", *Language Policy* Volume 12, Issue 1; 1-6.
- ESNAOLA, I.; ODRIOZOLA, J.M. (2000). "Iñaki Larrañagarekin elkarriketa", *BAT Aldizkaria*, 35.
<http://www.soziolinguistika.org/eu/node/845>
- EUSKO JAURLARITZA (2014). *V. Mapa Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza.
- FISHMAN, J. (1990). "Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan". *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- FISHMAN, J. (1991). *Reversing language shift*. Clevelon: Multilingual Matters, 76.
- HERNANDEZ, J.M. (2007). *Euskara, comunidad e identidad. Elementos de transmisión, elementos de transgresión*. Madrid: Ministerio de cultura.
- IRAOLA, J., HERNANDEZ, J.M. (1996). "Euskararen familia bidezko transmisioa Lasarte-Orian". Argitaratu gabeko txostena.
- JAUREGI, P.; Moreno, B. (1996). *Euskararen transmisio kanpaina: balantze ikerketa*. Txosten fotokopiatua.
- KASARES, P. (2013). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Doktore tesi argitaragabea. Iruñea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- LUYKX, A. (2005). "Children as Socializing Agents: Family Language Policy in Situations of Language Shift" in COHEN, James *et.al.* *The 4th International Symposium on Bilingualism*. Somerville: Cascadilla Press; 1407-1414.
- OCHS, E.; SCHIEFFELIN, B.B. (2011). "The theory of Language Socialization" in DURANTI, Alessandro (2011) *The Handbook of Language Socialization*. Oxford:Wiley-Blackwell; 1-21.

- SANCHEZ CARRION, J.M. (1981). "La Navarra Cantábrica. Estudio Antropolingüístico de una Comunidad Euskaldun", *Fontes Linguae Vasconum*, 37.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M. (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia: Elkar.
- SCHWARTZ, M. (2010). "Family language policy: Core issues of an emerging field", *Applied Linguistics Review*. Volume 1;171–192.
- SMITH-CHRISTMAS, C. (2014). "Being socialised into language shift: the impact fo extended family members on family language policy", *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 35:5; 511-526.
- SIADeco.(1994). *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa*. Siadeco (1978-91) eta HPINko (1991) ikerketetan bildutako datuen arabera, txosten fotokopiatua.
- URDANGARIN, J. "Familia bidezko jarraipena: Hiztun herriaren muina". Interneten eskuragarria (azken kontsulta: 2014-11-2). www.euskadi.net/euskara-ebpn
- URLA, J. (1989). "Reinventing Basque Society: Cultural Difference and the Quest for Modernity, 1918-1936" in DOUGLASS, William A. (ed.) (1989): *Essays in Basque Social Anthropology and History*. Reno: University of Nevada; 149-176.
- ZARRAGA, A. eta beste. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Andoain: Eusko Jaurlaritz; Soziolinguistika Klusterra.